

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sails**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 44/2019 FORU DEKRETUA, apirilaren 30ekoa. Honen bidez, zuzendu egiten dira 2019ko Berrikuntza eta Inbertsio Aurreratua Sustatzeko 2i Plana arautzen duten oinarriak onesten dituen 2019ko martxoaren 20ko 27/2019 Foru Dekretuan dauden okerrak.

2i Planaren 2019ko edizioa arautzen duen 27/2019 Foru Dekretuak berrietasun gisa jasotzen du laguntzaren onuradun diren proiektuek diru-laguntza osagarri bat jaso dezaketela berrikuntza sustatzeko Europako funts gisa onartutako Europako epe luzerako inbertsio-funts bati proiektua finantzatzeko eskatutako maileguaren finantza-gastuetarako, 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Foru-arau horren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena. (Aurrerantzean, 2/2018 Foru Araua erabiliko da foru-arau hori izendatzeko).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen (aurrerantzean, 39/2015 Legea) 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioen artean jasotako segurtasun juridikoaren printzipioa kontuan hartuta, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasunekoa, araugintza-esparru egonkor, aurrerangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, eta erraztasunak emango dituen ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonak eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko. Ildo horretan, zuzendu egin behar da aipatutako foru-dekretu horretan onuradunek berrikuntza-proiektuak finantzatzeko erabili ahal dituzten berrikuntza sustatzeko Europako funtsei dagokienez egiten diren aipamenak, Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako funtsetako bat berrikuntza sustatzeko Europako funtsen multzoarekin parekatu baita, eta ez da hala egin behar.

Hori dela eta, zuzendu egin behar dira, 2i programaren esparruan lagundutako proiektuak gauzatzeko maileguei buruzko informazio-trukea egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Elkargi EEEK sinatutako lankidetzak hitzarmenari dagozkion baldintzei buruzko aipamenak, eta berrikuntza sustatzeko Europako funtsak kudeatzen dituen erakundeekin erabiltzen diren antzeko beste mekanismo batzuk sartu behar dira ere.

Zuzenketa horren ondorioz, aldatu egin behar da eskabideak aurkezteko epea, eta epe osagarri bat zabaldu, onuradun izan daitezkeen erakundeek eskubide berberak dituztela bermatzeko.

Adierazitakoa dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatuta eta aurretik Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsita, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2019ko apirilaren 30eko batzarraldian, hauxe

XEDATU DU:

1. artikulua. — Foru dekretuaren xedea

Zuzendu egiten dira 2019ko Berrikuntza eta Inbertsio Aurreratua Sustatzeko 2i Plana arautzen duten oinarriak onesten dituen 2019ko martxoaren 20ko 27/2019 Foru Dekretuan dauden okerrak.



— *Honako hau dioen lekuan:*

8. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 25ean hasiko da, eta 2019ko apirilaren 12ko 13:30ean amaituko da.

— *Hau esan behar du:*

8. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epeak bialdi izango ditu, deialdi bakarraren barruan. Lehenengo aldia 2019ko martxoaren 25ean hasiko da, eta 2019ko apirilaren 12an amaituko da, 13:30ean. Bigarren aldia, berriz, 2019ko maiatzaren 6an hasiko da, eta 2019ko maiatzaren 10ean amaituko da, 13:30an.

— *Honako hau dioen lekuan:*

15. artikulua. — Helburuak

Laguntzen programa honen asmoa Bizkaiko enpresen berrikuntzako proiektuentzako finantzazioa eskuragarriago jartzea da.

Xede horrekin erakunde onuradunei diru-laguntzak eskaintzen dizkie «EELIF Berrikuntza Funtsak» emandako maileguen finantza gastuetarako.

— *Hau esan behar du:*

15. artikulua. — Helburuak

Laguntzen programa honen asmoa Bizkaiko enpresen berrikuntzako proiektuentzako finantzazioa eskuragarriago jartzea da.

Xede horrekin erakunde onuradunei diru-laguntzak eskaintzen zaizkie 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako berrikuntza sustatzeko Europako funtsek emandako maileguen finantza-gastuetarako.

— *Honako hau dioen lekuan:*

17. artikulua. — Diruz lagun daitekeen egitatea

Diruz lagundu ahal diren egitateak «EELIF Berrikuntza Funtsak» ematen dituen maileguak izango dira, dekretu honen I. Kapituluan ezarritakoaren arabera diru laguntza jaso duten proiektuentzat.

Jakinarazten da EELIF Berrikuntza Funtsaren maileguak ematea edo ukatzea Elkargi SGR erakundeari eta Solventis SGIIC-ri dagokiela, lehenengoa erakunde merkaturatzailea baita, eta, bigarrena, funtsa kudeatzen duen erakundea. Era berean, funtsari buruzko informazio-liburuxkan jasotakoaren arabera, maileguak berrikuntza teknologikoko proiektuek bakarrik jaso ditzakete beren izaera berritzaileari buruzko Beaz, S.A.U.-ren aldeko txostena jasotzen duten. Baliteke maileguaren zenbatekoa (nominala) eta hartan jasotzen diren gastuen aurrekontua ez izatea 2018ko 2i programan aurkeztutako eta —zenbait kasutan—, diruz lagundutako berbera.

— *Hau esan behar du:*

17. artikulua. — Diruz lagun daitekeen egitatea

Diruz lagundu ahal diren egitateak josten dira 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako berrikuntza sustatzeko Europako funtsek emandako maileguak, dekretu honen I. kapituluaren ezarritakoaren arabera diru-laguntza jaso duten proiektuentzako direnean.

Jakinarazten da aipatutako berrikuntza sustatzeko funtsen maileguak ematea edo ukatzea dagokiela funtsak kudeatzen dituzten erakundeei, eta maileguak soilik izan ahal direla, izaera berritzailea dela eta, Beaz, S.A.U.-ren aldeko txostena jaso duten berrikuntza teknologikoko proiektuetarako. Baliteke maileguaren zenbatekoa (nominala) eta hartan jasotzen diren gastuen aurrekontua ez izatea 2018ko 2i programan aurkeztutako eta —zenbait kasutan— diruz lagundutako berbera.



— *Honako hau dioen lekuan:*

18. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak «EELIF Berrikuntza Funtsak», IFZ V-95920310 duenak, emandako maileguei dagozkien finantza gastuak izango dira, maileguak 2020ko martxoaren 31 baino lehenago izenpetu badira.
2. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko finantza-gastuen zenbatekoa muga hauek kontuan hartuta kalkulatuko da:
 - a) Maileguaren zenbateko nominala ezin da izan dekretu honen I. Kapituluaren ezarritakoaren arabera diru laguntza jaso duten proiektuaren diru-laguntzaren oinarria baino handiagoa; eta gehienez, 600.000 euro.
 - b) Interes-tasa ezin da izan %2,1 finkoa baino handiagoa.
 - c) Maileguaren epea 5 urterakoa izango da, gehienez, urte 1eko gabealdiarekin.
 - d) Bigarren urtetik bosgarrenera, amortizazioa lineala izango da.
 - e) Komisorik gabe.
3. Diru-laguntza ematen den egunean eguneratutako balioa izango da zenbatekoa.
4. Diruz-lagungarriak izango dira maileguaren iraunaldiaren osoan sortatutako finantza gastuak.

— *Hau esan behar du:*

18. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira berrikuntza sustatzeko Europako funtsek emandako maileguei dagozkien finantza-gastuak, maileguak 2020ko martxoaren 31 baino lehenago izenpetu badira.
2. Diruz lagundu daitezkeen gehieneko finantza-gastuen zenbatekoa muga hauek kontuan hartuta kalkulatuko da:
 - a) Maileguaren zenbateko nominala ezin da izan dekretu honen I. kapituluaren ezarritakoaren arabera diru-laguntza jaso duen proiektuaren diruz laguntzeko moduko oinarria baino handiagoa; eta gehienez, 600.000 euro izango da.
 - b) Interes-tasa ezin da izan %2,1 finkoa baino handiagoa.
 - c) Maileguaren epea 5 urterakoa izango da, gehienez, urte 1eko gabealdiarekin.
 - d) Bigarren urtetik bosgarrenera, amortizazioa lineala izango da.
 - e) Komisorik gabe.
3. Diru-laguntza ematen den egunean eguneratutako balioa izango da zenbatekoa.
4. Diruz-lagungarriak izango dira maileguaren iraunaldiaren osoan sortatutako finantza gastuak.

— *Honako hau dioen lekuan:*

21. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea

EELIF Berrikuntza Funtsaren maileguen finantza-gastuetarako jasotzen den diru-laguntza ofizioz izapidetuko da, sinatzen den mailegu bakoitzari buruzko informazioa jasotzen denean, Elkargi SGR erakundearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenean xedatutakoarekin bat. Jakinarazpena 2020ko ekainaren baino lehenago egin beharko da.

— *Hau esan behar du:*

21. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea

Berrikuntza sustatzeko Europako funtsen maileguen finantza-gastuetarako laguntza-eskabidea ofizioz izapidetuko da, sinatzen den mailegu bakoitzari buruzko informazioa jasotzen denean, funtsak kudeatzen dituzten eta/edo funtsek emandako maileguak bermatzen dituzten erakundeekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena dela bide. Informazio hori 2020ko ekainaren 30a baino lehen jakinarazi beharko da.



– *Honako hau dioen lekuan:*

23. artikulua. – Aurkeztu beharreko agiriak

1. Diru laguntza eskatzeko eta justifikatzeko agiri guztiak Elkargi EEEK aurkeztuko du, helburu horretarako sinatu den lankidetzaz hitzarmenean xedatutakoarekin bat. Horren arabera, Elkargi EEEK Bizkaiko Foru Aldundiari honako hau jakinaraziko dio:

- a) 2i egitarauko enpresa onuradunek «EELIF Berrikuntza Funtsa»rekin izenpeturiko mailegu bakoitza, ezaugarriak barne (printzipala, amortizatzeko era...).
- b) Sei hilean behin jakinaraztea «EELIF Berrikuntza Funtsa»rekin izenpetu den eta finantza-gastuetarako diru-laguntza duen mailegu bakoitzaren amortizazio-taula eguneratua, enpresek ordaindutako diru-kopuruak eta ixteko aurreikuspena barne.

2. Dena dela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko. Era berean, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak erakunde eskatzaileari bisitak eskatu ahal izango dizkio proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.

– *Hau esan behar du:*

23. artikulua. – Aurkeztu beharreko agiriak

1. Diru-laguntza eskatzeko eta justifikatzeko agiri guztiak funts bakoitza kudeatzen duen erakundeak eta/edo berrikuntza sustatzeko Europako funts bakoitzak emandako maileguak bermatzen dituen erakundeak aurkeztuko ditu, helburu horretarako sinatu den lankidetzaz hitzarmenean xedatutakoarekin bat. Horren arabera, erakundeak hau jakinarazi beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari:

- a) 2i programaren enpresa onuradunek funtsarekin izenpeturiko mailegu bakoitza, ezaugarriak barne (printzipala, amortizatzeko era...).
- b) Sei hilean behin, funtsarekin izenpetu den eta finantza-gastuetarako diru-laguntza duen mailegu bakoitzaren amortizazio-taula eguneratua, enpresek ordaindutako diru-kopuruak eta ixteko aurreikuspena barne.

2. Dena dela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko. Era berean, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak erakunde eskatzaileari bisitak eskatu ahal izango dizkio proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.

– *Honako hau dioen lekuan:*

24. artikulua. – Diru-laguntza ordaintzea

EELIF Berrikuntza Funtsaren maileguetarako finantza-gastuei dagozkien diru-laguntzak Elkargi EEEri emango zaizkio zuzenean, sinatutako maileguei buruzko informazioa jaso ondoren. Hark ez dizkio jasanaraziko gastuok erakunde onuradunari, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 26ko erabaki bat dela bide sinatutako hitzarmenean xedatutakoarekin bat.

Elkargi EEEri ordainketa egiteko, onuradunak egunean beteta izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ez bada, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, edo diru-laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

– *Hau esan behar du:*

24. artikulua. – Diru-laguntza ordaintzea

Berrikuntza sustatzeko Europako funtsen maileguen finantza-gastuei dagozkien diru-laguntzak zuzenean emango zaizkie funts bakoitzaren kudeatzaileari eta/edo funts bakoitzak emandako maileguak bermatzen dituen erakundeari, sinatutako maileguei buruzko informazioa jaso ondoren. Horren ondorioz, erakundeak ez dizkio jasanaraziko



gastuok erakunde onuradunari, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenean (21. artikuluan aipatzen dena) xedatutakoarekin bat etorrira.

Funts bakoitzaren kudeatzaileari eta/edo funts bakoitzak emandako maileguak bermatzen dituen erakundeari ordainketa egiteko, erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ez bada, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, edo diru-laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuta.

— *Honako hau dioen lekuan:*

27. artikulua. — Diru-laguntza metaketa

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. Zenbakikoan, eta EE Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

EELIF Berrikuntza Funttsaren maileguetarako finantza-gastuei dagozkien diru-laguntzak jaso dituzten enpresen kasuan, maileguaren printzipalaren %10a MINIMIS laguntza gisa zenbatuko da, erakunde publikoek berfidantzatutako Elkargiren abala bait dauka.

— *Hau esan behar du:*

27. artikulua. — Diru-laguntza metaketa

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. zenbakikoan, eta EE Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

Berrikuntza sustatzeko Europako funtsen maileguen finantza-gastuetarako diru-laguntzak jasotzen dituzten enpresen kasuan, maileguen printzipalaren ehuneko bat MINIMIS laguntza gisa zenbatu ahal izango da, mailegurako emandako bermeak erakunde publikoetatik jaso duen berfidantzamenduaren arabera.

— *Honako hau dioen lekuan:*

49. artikulua. — Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak

Beste diru-laguntza batzuk ere jaso, eta gain-finantzazioa gertatuko balitz, gehiegizko diru-kopurua itzuli beharko du, halaxe ezartzen baita 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan. Kopuru horri, gainera, dagokion berandutza-interesa aplikatuko zaio.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziazio publikoan sortutako soberakina.

Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

Helburua betetzen ez bada, hala diruz lagundutako proiektua, nola haren zati handi bat ez egiteagatik, finantza-gastuetarako emandako diru-laguntza itzuliko da, nahiz eta



finantza-erakundeak EELIF Berrikuntza Funtsetik emandako maileguen kuotak ordainduta izan.

Beaz, S.A.U., sozietateari badagokio funtsak banatzea eta justifikatutako gastua aurrekontuko gastua baino txikiagoa izateagatik itzultzeko espediente bat ebatzi bada, ebazpen hori erakunde laguntzaileari jakinaraziko zaio, sobera geratutako funtsak itzul ditzan. Kasu horretan, ez da interesik aplikatuko.

Era berean, finantza-gastuetarako diru-laguntza eman bada eta zenbatekoa Elkargi EEE erakundeari eman bazaio, itzulketa egin bada helburua osorik ez betetzeagatik edo benetako finantza-gastuak diruz lagundutakoak baino txikiagoak direlako, orduan erakunde onuradunari eta Elkargi EEEri jakinaraziko zaie ebazpena. Haiek maileguaren interesei dagokien zenbatekoa itzuliko dute (sortutakoak eta sortutako gabekoak, hurrenez hurren).

Foru Dekretu honen 48. artikuluko kasuetan, pertsona edo erakunde onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak itzuli beharko ditu, bai eta dagokion berandutze-interesa ere.

Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketen egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da diru-laguntzaren itzulketa.

— *Hau esan behar du:*

49. artikulua. — Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak

Beste diru-laguntza batzuk ere jaso, eta gain-finantzazioa gertatuko balitz, gehiegizko diru-kopurua itzuli beharko du, halaxe ezartzen baita 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan. Kopuru horri, gainera, dagokion berandutza-interesa aplikatuko zaio.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziario publikoan sortutako soberakina.

Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

Helburua betetzen ez bada, hala diruz lagundutako proiektua, nola haren zati handi bat ez egiteagatik, finantza-gastuetarako emandako diru-laguntza itzuli beharko da, nahiz eta erakunde onuradunak berrikuntza sustatzeko Europako funtsak emandako maileguaren kuotak ordainduta izan.

Beaz, S.A.U., sozietateari badagokio funtsak banatzea eta justifikatutako gastua aurrekontuko gastua baino txikiagoa izateagatik itzultzeko espediente bat ebatzi bada, ebazpen hori erakunde laguntzaileari jakinaraziko zaio, sobera geratutako funtsak itzul ditzan. Kasu horretan, ez da interesik aplikatuko.

Era berean, finantza-gastuetarako diru-laguntza eman bada eta zenbatekoa funts bakoitzaren kudeatzaileari eta/edo funts bakoitzak emandako maileguak bermatzen dituen erakundeari ordaindu bazaio, emandakoa itzuli behar bada helburua osorik ez betetzeagatik edo benetako finantza-gastuak diruz lagundutakoak baino txikiagoak direlako, orduan erakunde onuradunari eta kudeatzaileari jakinaraziko zaie itzuli beharra xedatzen duen ebazpena, maileguaren interesei dagokien zenbatekoa itzul dezaten (sorrarazitakoak eta sorrarazi gabekoak, hurrenez hurren).



Foru dekretu honen 48. artikuluko kasuetan, pertsona edo erakunde onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak itzuli beharko ditu, bai eta dagokion berandutze-interesa ere.

Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketen egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren araberakoa izango da diru-laguntzaren itzulketa.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, baina martxoaren 20ko 27/2019 Foru Dekretua indarrean jarri zenetik izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2019ko apirilaren 30ean.

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ